

## **IRIZAR E-MOBILITYk ELEKTROMUGIKORTASUN KONTRATU HANDI BAT IRABAZI DU EUSKAL KOSTALDEA-ATURRI HIRIGUNEAN**

*Ormaiztegin, 2016ko abenduaren 20an*

Irizar e-mobilityk, Irizar taldeko elektromugikortasun enpresa berriak, kontratu handi bat irabazi berri du Euskal Kostaldea-Aturri hirigunearekin.

**Kontratua 18 autobus egitean datza. Irizar i2eak izango dira, 18.73 metro luzeko autobus artikulatu %100 elektrikoak (BRT). Eta horrez gainera, karga estazioak egingo dira linea bakoitzaren bukaeran azkar kargatzeko azpiegituren bidez eta kotxe-tokirako karga estazio motelagoak.**

Kontratua gaur bertan sinatu da Hiriguneko egoitza nagusian, Baionan, eta han izan dira: Claude Olive, sindikatuko presidentea; Jean-René Etchegaray, Lehen Presidenteordea, Florence Lasserre, José Manuel Orcasitas Irizar Taldeko Zuzendari Nagusia eta Hector Olabe, Irizar e-mobilityko Zuzendari Nagusia.

Autobusentzako bakarrik izango den erraiaren bi lineak eraikitzeke ingeniariak zibileko lanak 2017an hasiko dira eta zerbitzua 2019ko apirilaren 1ean jarriko da martxan. Horrela Euskal Kostaldea-Aturri Hirigunea lehena izango da Frantzia osoan BRT sistemadun bi linea oso %100 elektrikoak edukitzen.

Kontratu honetako Irizar i2e-ek (BRT %100 elektrikoa) diseinu pertsonalizatu eta berritzailea izango dute, Irizar eta Euskal Kostaldeko Hirigunearen arteko lankidetzari esker. 18.73 metro luzeko ibilgailua da, abangoardiako TramBus diseinuarekin eta Irizar Taldearen teknologia duena % 100.

Ibilgailuek hainbat garraio sistema dituzte, Taldeko enpresek garatutakoak erabat:

- Alconzaren motor elektrikodun propulzio sistema.
- Jemaren inbertsoreak eta Irizar e-mobilityren energia biltegitratzeko paketea.
- Datiken (hau ere Irizar Taldekoa) sistema autobusen eta karga estazioen telediagnostikorako eta berrikuspenerako eta ibilgailuak karga estazioetan automatikoki gidatu eta kokatzeko sistema txertatua.
- Usb konexioak gailu elektronikoak kargatzeko eta wifi sistema txertatua une oro interneterako konexioa izateko.

18 metroko Irizar i2e autobus artikulatu %100 elektrikoaren (BRT) lehen unitatea iraunkortasun probak bukatzen ari da IDIADako instalazioetan eta emaitzak oso onak dira. 2017an merkaturatzea aurreikusten da.

Eskaera honen produkzio guztia Irizar e-mobilityren Adunako lantegian egingo da, Baionatik 65 kilometrora. Autobus berritzaile %100 elektriko hauek 2019ako ekainean hasiko dira zerbitzua ematen.

Kontratu honek, esan bezala, ibilgailuak nahiz azpiegiturak 15 urtez mantentzea ere jasotzen du, eta, beraz, ezin hobeto txertatzen da Irizar Taldea Irizar e-mobilityren bidez zabaltzen ari den estrategian, alegia, bezeroen eskakizunak %100 beteko dituzten giltza eskura erako proiektuak eskaintzea.

***"Euskal kostaldea-Aturri Hiriguneari eskertzen diogu abangoardiako garraio proiektu handi hau aurrera eramateko Irizarrengan jarritako konfiantza. Jasangarritasun arloko bere konpromiso handiari erantzuten dio eta, zalantzarik gabe, garai erabakigarria izango da"*** dio José Manuel Orcasitas Irizar Taldeko Zuzendari Nagusi eta Irizar Emobilityko Lehendakariak.

***"Lorpen honek Irizar Taldean definitutako estrategia indartzen du: bezeroari balio erantsi handia ematea produktu eta sistema guztientzat solaskide bakarra izatea eskainiz, eta hura izatea bere teknologiarekin sortutako produktua eta sistemak eskaintzen dizkiona eta baita giltza eskura erako zerbitzu integral erabat pertsonalizatua ere. Urtea bukatzeko modu bikaina da"*** gehitu zuen.

**Irizar e-mobility**

- 2014an Irizar sektoreko Europako lehen fabrikatzailea izan zen Bartzelonari lehenengo bi ibilgailu %100 elektrikoak entregatzen ZeEUS proiektuaren barnean eta lehen unitatea entregatu zuen Donostian.
- 2015ean lehen unitateak entregatu ziren Londres, Marseilla eta Bartzelonako metropolian eta hainbat test egin ziren Europako zenbait hiritan.
- Aurten, 2016an, Marseillarako 6 unitateak entregatu dira Frantziako lehen linea guztiz elektrikorako eta beste unitate batzuk Donostia eta Bilborako, eta autobus artikulatuaren lehen unitatea fabrikatu da, 6 hilabete daramatzana Idiadan (Tarragona) iraunkortasun probak gainditzen.
- 2017ko eskaeren artean datozen hilabeteetan entregatu beharreko 12 metroko 15 autobus daude dagoeneko eta horiei gehitu behar zaizkie Euskal Kostaldea-Aturri Hiriguneko kontratu honetako 18 autobus artikulatuak.

Irizar e-mobilityk elektromugikortasun irtenbide integralak eskaintzen ditu bai ibilgailuentzat bai haien osagaiarentzat eta hirietako sistemarentzat.

Talde osoko enpresen ezagutza eta esperientzia uztartzen ditu hirietarako mugikortasun irtenbide osoak sortzeko: Autobus %100 elektrikoak eta kargarako, trakziorako eta energia biltegitratzeko beharrezkoak diren azpiegitura sistema nagusiak. Horiek guztiak Taldearen teknologia %100 europarrarekin diseinatu eta fabrikatuak eta Irizarren zerbitzuaren berme eta kalitatearekin.

Produktu gama 2014tik Europako hainbat hiritan dabilzan 10,8 eta 12 metroko hiriko autobusek, autobus artikulatu eta biartikulatuek eta hiriei zerbitzua emateko beste hainbat ibilgailu elektrikoak osatzen dute.

Irizar Taldeak garraio garbi eta irisgarriak erabiltzea sustatu nahi du. Ingurumenaren, ongizatearen eta pertsonen osasunaren aldeko apustua egiten duten garraioak dira eta hirigune hobeak sortzen dituzte. Kutsadura akustikoa murrizten da, kostuak murrizten dituzten kontsumo txikiak lortzen dira eta zero igorpeneko ibilgailuen alde egiten da.

“For a better life” da gure leloa.

Irizar e-mobilityren lantegi modernoa Adunan (Gipuzkoa) dago.

Irizarrek, beste behin, bere inguruan hazkundera eta aberastasuna sortzearen aldeko apustua egin du, bere misioarekin bat.

18.000 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia du 37.000 m<sup>2</sup>ko lursailaren barruan. Ez dira autobus elektrikoak bakarrik egingo. Hirietako elektromugikortasun beharrak aseko dituzten beste ibilgailu batzuk ere egingo dira, eta baita haien osagai eta sistema nagusiak ere.

*Informazio gehiagorako, jarri harremaneta:*

*Ana Eceiza,*

*Posta elektronikoa: [aeceiza@irizar.com](mailto:aeceiza@irizar.com)*

*Tel. : + 34 667181833*